

ILDO ESTRATEGIKOAK

- Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria, eta ikasle bakoitzak Batxilergoko irteera-profila lortzea da hezkuntza-sistemaren helburua. Ziurtatu behar da ikasle guztiak XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki arrakastaz aurre egiteko moduan daudela. Hori guztia, ongizate emozionaleko inguru inklusibo eta seguru batean.
- Ikastetxea da hezkuntza-eraldaketarako ardatza, eta antolakunde ahaldundua izan behar du, lidergoa banatzea sustatzen duena eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan oinarritutako berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatuko dituen. Horretarako, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du.
- Irakasleek rol aktiboa hartu behar dute ikaskuntza-prozesuan, eta, hain zuzen, beren irakaskuntza-esparruan eta trebetasun didaktiko eta metodologikoetan duten aditu mailako ezagutza da haien lidergoaren oinarria. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo ikasleak guztiz garatzeko benetan balio duen beste edozein irakaskuntza edo ikaskuntza modalitatetan ere. Tutorearen rola etapa guztietan indartzen da, tutorea ikasleen bideratzaile eta gidari gisa hartuta, ikasle guztien elkarbizitza ona eta arrakasta lortzeari begira.
- Konpetentzia-curriculumama ikaskuntza sakon eta funtzional jakin baterantz bideratzen da: ikasten dena era bateko eta besteko egoeretan erabil daiteke, denboran zehar irauten du eta aukera ematen du egoera errealetan problemak konpontzeko.
- Ebaluazio hezitzailea, hau da, informazioa biltzen eta analizatzen duen prozesu iraunkor eta sistematikoa, bai ikaskuntza-prozesuak eta bai konpetentzien garapenean izandako aurrerapena ezagutzeko eta baloratzeko.
- Arreta berezia jartzen da etapen arteko trantsizioan, ikasleak etapa bakoitzeko erronketara egokitu daitezten.
- Hezkuntza linguistiko eta eleaniztunaren kalitatea funtsezkoa da: beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen ditu errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundu-ikuskerara eta ulerkerara jakin bat eta besteekin harremanetan jartzeko era zehatz bat garatzeko. Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin – hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean, baita beste hizkuntzekin ere. Gainera, konpetentzia linguistiko eta eleaniztunaren garapenak gainerako funtsezko konpetentzien garapena sustatzen du, eta, beraz, gainerako arloen zerbitzura egongo da.
- Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna, benetako integrazioarako, aukera-berdintasunerako, erabateko partehartzerako eta eskola-arrakastarako bidea markatuko duena. Ikaskuntzarako garapen unibertsala hartukoda aintzat irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan.
- Hezkidetzak funtsezkoa da pertsonen sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren arabera estereotipoetatik eta roletatik kanpo garatzen laguntzeko, eta bera izango da hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa eta ikastetxeen antolaketa pedagogikoarentzako irizpide orientatzailea.
- Arreta berezia jarri behar zaie ikasleen ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoa zaintzeari. Ondo eta harmonian sentitzearen esperientzia subjektiboa sartzeko da hor, eta norberaren gogobetetasuna ere bai, zailtasunei aurre egiteko eta haiek ondo gainditzeko segurtasuna ematen duena. Ongizate emozionala beharrezkoa da ingurune eskaerei eta egoerei aurre egiteko edo horietara egokitzeko, eta eskaera horien artean dago ikaskuntza ere. Alde horretatik, curriculumak ongizate emozionalean lagundu behar du.